

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA
2017ko IRAILAREN 26ko SAIOA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta hogeit hamar minutu direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.

Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.

Janire Larrea González and., Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Programatzailea: Natalia Garate Andrade and.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. 2017ko UZTAILAREN 17ko BILERAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Gai honi dagokion idazpuruan adierazitako akta alde aurretik helarazi denez, ez da une horretan irakurri.

Artezkaritza Kontseiluak akta onartu egin du. Euskal Sozialistak Udal Taldeak abstentzioa agertu du.

2. AURREKONTUAREN 2017ko ABUZTUAREN 30era ARTEKO EGOERAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak aurrekontuaren 2017ko abuztuaren 28ra arteko betetze-maila zein den jakinarazi du, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde aurretik emandako

dokumentazioarekin bat etorriz.

Gai horrekin lotutako beste inongo parte hartzerik egon ez dela ikusita, Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean geratu da.

3. 2017ko KARMENGO JAIETAKO OROI-TXOSTENA.

Kontseiluburu jaunak Garate Andrade andreari eman dio hitza, azken horrek 2017ko Karmengo jaietarako buruz egindako oroi-txostenaren alderdi nagusiak azal ditzan.

Udal Taldeek parte hartu ondoren, Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean geratu da.

4. AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundearen jarduerarekin zerikusia duten zenbait gairen gaineko informazioa eman du, hala nola, Santurtziko Antzerki Jaialdia, Abesbatzen topaketak, Santurzine zine jaialdia eta Sardinera eguna.

4. GALDE-ESKEAK

Ez da egon.

Saio honen grabazioa hurrengo esteka honetan dago:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/S2ALTkQsjlkAbH1>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamaikak eta berrogei minutu direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE

ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA